

Irakaspide zarrenak (1.677)

Itxasorako Nabegazionekoa liburua, bata, eta Abeltzaintzakoa, bestea.

Azvimarratzekoa da, liburu zarrenetarikoen artean erlijio gaidunik ez izatea, ta bai itxasoz nabegatzeari buruzkoa. Itxasontziko kapitain eta pilotoei zuzendutako ikaskizunak dagoz liburu onetan.

“Liburu au da Ixasoko Nabigacionecoa” deituriko liburua 1.677 urtean kaleratu zan. “Les voyages aventureux du capitaine Marin de Oyarzabal, habitant de Çubiburu,” prantzezez idatzita koaren itzulpena da. 1.643 an argitaratua.

Lan au interesgarri da izkera ta idazkerari iagoken aldetik, baita euskaldun bale zaleak Terranovarantza erebiltzen zituzten bi-deen barri zeatzak emoten dauzenetik.

Beste euskerazko liburu batek, benaparreraz daukagunak, ta ez lapurdieraz, abeltzaintzari buruzko lantxua dakar, Mongo Dessançak, Be Naparroako Kimikalariak, egindakoa. (1662). Lan onetan (1692) abereen, gaitz ezagunenak, batez be idienak, ainbat sendagaiakaz batera, aurkeztuten dauz.

Be naparreraz idatzita datorkigu, an emenka, lapurdierazko esanakaz, antza danez jatorrizko eskuidazti kopiaztallen baten-gaitik.

Agustin Arrien